

Memoria Kontrol eta Berme Batzordea 2020-2024

1. Organoaren izaera eta osaera

Estatutuen 24. artikulua honako hau dio Kontrol eta Berme Batzordea dela eta:

1. Batzorde hau EH Bilduren funtzionamendu demokratiko eta gardena zaintzeko eta bilkideen eskubideak defendatu eta bermatzeko organo gisa eratu da. Halaber, bilkideek eta organoek EH Bilduren Estatutuak betetzen dituztela zainduko du
2. Askatasuna, agintea eta independentzia ditu bere eginkizunak betetzeko, eta beti arrazoituak izango diren ebazpen, irizpen eta gomendioen bidez adierazten da. Halaber, Federazioaren Estatutuen edo Araudien interpretazioari buruzko txostenak egingo ditu.
3. Estatutuen eta horiek garatzen dituzten Erregelamenduen inguruan sortzen diren eskumen-gatazkak eta diziiplina-espedienteak ebatziko ditu. Diziiplina-espedienteetan bigarren auzialdi gisa jardungo du.
4. Bilkideek eta beren estatutu-eskubideetako batzuk urratutzat jotzen dituzten gobernu-organoei babes-eskean agertu ahal izango dira organo honetan.
5. Kongresuak aukeratutako 5 kidek osatuko dute, eta horietako 2, gutxienez, emakumeak izango dira. Kideen artean lehendakaria eta idazkaria aukeratuko dira.
6. Kontrol eta Berme Batzordeak bere erregelamenduaren arabera jardungo du, eta erregelamendu hori Batzar Orokorrak onartuko du.
7. Kontrol eta Berme Batzordeko kide izatea bateraezina da beste edozein kargu organiko edo publikorekin, dela EH Bilduren baitan, dela edozein alderdiren baitan.
8. Bilkideei edo EH Bilduko gobernu-organoei eragiten dieten auzien berri emango dio urtero Batzar Nagusiari.
9. EH Bilduren gobernu-organoei eskumena dute diziiplina-espedienteak bideratzeko, ofizioz edo aldeetako batek arrazoitutako eskariz.
10. Bilkideen militantzia etetea dekretatu ahal izango du, diziiplina-araubideak berariaz hala aurreikusten duen kasuetan.

2. Batzordearen osaera 2021-2024 aldian

- PRESIDENTEA: Ander Bilbao
- IDAZKARIA: Lore Erriondo
- BATZORDEKIDAK: Ino Galparsoro, Antton Izagirre, Iban Arrunategi

3. Batzordearen eginkizunak

Kontrol eta Berme Batzordearen Erregelamenduak honako eginkizun hauek arautzen ditu organoaren eginkizun gisa:

- Barne-araudiaren kontsultak interpretatzea eta ebaztea. (Estatutuen edo Federazioaren erregelamenduen interpretazioari buruzko txostenak egitea).
- Diziplina-espedienteak ebaztea.
- Gatazka politikoak eta antolamendukoak, eskumenekoak edo Federazioko edozein organok hartutako erabakien aurkaratzeak ebaztea.
- Babes-demandak ebaztea.
- Urtero Batzar Nagusiari planteatutako gaien berri ematea.

4. 2021-2024 Jarduketak

Agintaldiaren hasieran, Batzordeak ebazteke zeuden hainbat espediente heredatu zituen arren, memoria hau idazterakoan, organo honi planteatutako gai guztiak ebatzi ditugu.

DIZIPLINA ESPEDIENTEAK

Hasitako espedienteetan inplikaturako bilkideen datu pertsonalak babestearren, ebazpen irmoa eragin duten 5 espedienteetan tratatutako gaiak bakarrik aipatuko dira:

- EH Bilduren gobernu organoek Batzar Nagusitik duten parte-hartze, esku-hartze eta kontrol eskubideari buruzkoa.
- Aurreko Berme Batzordea hautatzeko metodoari eta haren bateraezintasun-araubideari buruzkoa.
- Udal-mailako kargu publikodunek kode etikoa eta estatutuak hausteari buruzkoa.
- Kargu publikodun eta organikoetara iristeko berdintasuna bilkideentzat.

ARAUDIAREN INTERPRETAZIOA

Barne-araudiaren interpretazioaren esparruan, hainbat organok eskatuta, honako jarduera hauek gauzatu ditugu:

Kontsulta 2021/1 Kuadrilla bakoitzak Arabako Mahai Politikoan izango dituen ordezkariak hautatzeko araudia onartzea.

Kontsulta 2022/1 Kode Etikoan sartutako aldaketen behin betiko oniritzia.

Kontsulta 2023/1 Arautegia ez dator bat euskaraz eta gaztelaniaz.

Kontsulta 2023/2 Salbuespen-baimena Estatutuetako 13.1 artikulua eta hauteskunde-zerrendak egiteko araudian.

Kontsulta 2023/3 Hegoaldeko Udal Taldeen Koordinakundearen Araudiaren aldeko txostena.

Kontsulta 2024/4 Salbuespen-baimena Estatutuetako 13. artikulua eta hauteskunde-zerrendak egiteko erregelamendua.

BERMEA KONTROLATZEA HAUTAPEN PROZESUETAN

Barne-araudiaren interpretazioaren esparruan, hainbat organok eskatuta, honako jarduera hauek gauzatu ditugu:

2023.08.10 Nafarroako Lehendakaritza hautatzeko prozesuaren oniritzia.

2023.02.27 Barne Hauteskundearen Prozesuan Berme Batzordekidea banantzearen oniritzia.

2023.02.06 Barne Hauteskundearen Prozesuko Berme Batzordekideak sartzearen oniritzia.

2021.10.27 Tokiko arduradunak hautatzeko prozesuari oniritzia ematea.

2021.06.16 Tokiko arduradunak hautatzeko prozesuari oniritzia ematea.

Bilbon, 2024ko uztailaren 24ean.



Lore Erriondo
Idazkaria



Ander Bilbao
Lehendakaria